

# Mendizaletasunerako

## Praktika onen dekalogoia

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA  
*Federación Guipuzcoana de Montaña*



Gaur egun geroz eta gehiago dira mendia eta landa eremua bere aisialdiaz gozatzeko erabiltzen duten herritarrak.

Gipuzkoako landa eremuaren % 80a baino gehiago jabetza pribatukoa da eta hainbat pertsonak bizi eta lan egiten dute bertan egunero.

Landa eremura gerturatzen garenean bertako ohiturak eta arauak errespetatzen ez baditugu, arazoak sortzen dira eta zentzu horretan, Gipuzkoako Mendizale Federaziotik, bizikidetza bultzatzeko, ondorengo gomendio-sorta proposatzen dugu:

# MENDIZALETASUNERAKO PRAKTIKA ONEN DEKALOGO


## Mendian ere errespetuz

1. Saiatu mendira joateko garraio publikoa erabiltzen. Ezin bada eta ibilgailu propioa baliatu behar bada, aparkatu horretarako prestatutako tokietan.
2. Bisitatuko den eremua Babestutako Naturagune bat bada, ezagutzeaz arduratu mendiko kirolen inguruan bertan ezarrita dauden arauak.
3. Saiatu aurrez markatuta dauden ibilbideei jarraitzen, beti ere lur eremu pribatuetatik igarotzea ekidinez.
4. Langa edo ataka bat igarotzean, beti itxita utzi.
5. Mendira txakurrarekin baldin bazoaz, beti lotuta eraman.
6. Mendira bizikletan hurbiltzen bazara, moteldu abiadura baserri inguruetan edo oinezkoren batekin topo egitean.
7. Mendi ibilbide bat egiterakoan, baso-lanetan ari direnen eremu bat gurutzatu behar bada, jakinarazi langileei zein bide jarraituko den eta ez oztopatu beraien jarduna
8. Ez hartu fruiturik zuhaitzetatik, jabearen baimenarekin ez bada.
9. Zaindu ingurune naturala eta bertatik igaro ez bazina bezala utzi.
10. Lagundu landa eremuko ekonomiei eta bultzada bat eman, hango zerbitzuak erabiliz eta bertako produktuak kontsumituz.




### 1. Saiatu mendira joateko garraio publikoa erabiltzen. Ezin bada eta ibilgailu propioa baliatu behar bada, aparkatu horretarako prestatutako tokietan.

Mendi ibilbide bat egiteko hasiera puntura kotxearekin joaten garenean, gogoratu, aparkatzeko orduan, landa eremu horretan beste erabiltzaile batzuek lanean dihardutela eta, kasu batzuetan traktoreak edo tamaina handiko beste ibilgailu batzuk igaro daitezkeela kotxea utzi dugun lekutik. Saihestu bereziki pista estuen alboak, bihurgune inguruak eta baserri aurrealdeak. Errepidean animaliekin topo egiten baduzu, berriz, lasai egon eta ez itzazu izutu bozina joz edo oihu eginez. Abereak aurrez aurre badatozkizu, kokatu zaitez bide bazterrean eta itxaron igaro daitezen arte. Zure norabide berean badoaz, moteldu abiadura. Abereak aldentzen joango dira eta aurrera jarraitu ahal izango duzu edo abeltzainak pasatzeko esango dizu.




### 2. Bisitatuko den eremua Babestutako Naturagune bat bada, ezagutu mendiko kirolen inguruan bertan ezarrita dauden arauak.

Naturagune Babestuak bereziki sentiberak diren zonaldeak dira. Bertako animalia, landaredia eta geologia babesteko hainbat arau propio eduki ohi dituzte. Ezagutu mendira joan aurretik arautegi hau eta errespetatu ezazu.



### 3. Saiatu aurrez markatuta dauden ibilbideei jarraitzen, beti ere lur eremu pribatuetatik igarotzea ekidinez.

Gaur egun asko dira erakunde desberdinek markatutako mendi ibilbideak. Ibilbide hauetatik atera eta lur eremu pribatuetan sartzeak arazoak sor ditzake ganaduekin edo landaketekin. Oinez zein lasterka joatean, abereen ondotik ez pasa, ahal bada itzulingurua emanez, animaliak erasotzak senti ez daitezten.



### 4. Langa edo ataka bat igarotzean, beti itxita utzi.

Ohikoa da langa edo ataka hauek ganadua dagoen eremuak ixteko erabiltzea. Berebiziko garrantzia dauka ataka denak itxita egotea, ganaduei ihesbidea eragozteko, eta abere horien zaintzaileak buruhauste handi bat izan ez dezan. Gogoratu zenbait itxituratako hariak elektrifikatuak egon daitezkeela. Asken ingurutik igarotzean, era berean, errespetatu animalien lehentasuna.



### 5. Mendira txakurrekin baldin bazoaz, beti lotuta eraman.

Sarritan, beste txakur bat ikustean, zaunka hasten dira, edo artalde batekin topo eginez gero, harengana hurbiltzen dira. Kasu batzuetan, ardiak ernari daudenean, adibidez, arazo larriak sor daitezke eragindako estresa dela medio. Artzain txakur batekin inguruan abereak daudela ohartarazteko zaunka egiten duenean, berriz, lasai egon eta abere taldea inguratuz aldentzen joan.

Horrez gain, ez eraman plastikozko poltsarik eskuan. Abereak abeltzainak ematen dion gatzarekin nahastu bai dezake eta hurbildu egin bai daiteke.




### 6. Mendira bizikletan hurbiltzen bazara, moteldu abiadura baserri inguruetan edo oinezkoren batekin topo egitean.

Mendiko bizikleta ingurune naturalaz gozatzeko elementu paregabea izanik ere, aintzat hartu behar dugu erabiltzen ditugun bideak landa eremuko bizilagunen bizitoki ere badirela eta abiadura moteldu behar dugula, bertakoei arazorik ez sortzeko. Gogoratu, lehentasuna oinezkoek eta animaliek dutela beti.



### 7. Mendi ibilbide bati egiterakoan, baso-lanetan ari direnen eremu bat gurutzatu behar bada, jakinarazi langileei zein bide jarraituko den eta ez oztopatu beraien jarduna.

Baso-lanetan ari diren langileek motozerrak eta kamioiak erabiltzen dituzte zuhaitz horiek menditik ateratzeko eta, zaratarekin ez da erraza mendizaleak erreparatzea. Igarotzen hasi aurretik komeni da ziurtatzea, motozerra erabiltzen ari denak edota kamioi-gidariak ikusi egin zaituela.



### 8. Ez hartu fruiturik zuhaitzetatik, jabearen baimenarekin ez bada.

Ibilbidean zehar, fruta-arbolak topatu ohi dira bidearen alde bietan. Fruitu emaille hauek landa eremuko biztanle batek erein eta zaindu ditu eta batzuetan, bere jarduera ekonomikoaren parte dira. Jabeari baimena eskatuz gero, probatzeko aukera emango digu seguruenik. Askotan perretxikoak ere eremu pribatuetan egoten dira. Modu berean jokatu borda batetik igaroz gero, hau da, baimena eskatu sartu aurretik.

### 9. Zaindu ingurune naturala eta bertatik igaro ez bazina bezala utzi.

Gure ibilbidetarako eremua milaka urteetan zehar moldatua izan da. Disfrutatu mendiaz eta joka dezagun zentzuz: ez oihurik egin (arrisku bat ekiditeko ez bada behintzat), ez utzi zaborrik mendian, ez egin surik, ez bota zigarro-mutxikinik eta ez kanpatu zure kontura. Abere-talde bat bidea zeharkatzen ikusiz gero ez egin mugimendu zakarrrik, alboratu eta, distantzia jakin batera jarri ondoren, itxaron taldea pasatu arte.

### 10. Lagundu landa eremuko ekonomiei eta bultzada bat eman, hango zerbitzuak erabiliz eta bertako produktuak kontsumituz.

Mendizaletasunak onurak ere sor ditzake landa ingurunean. Edozein zerbitzu behar izanez gero, erabili tokian tokikoak eta kontsumi dezagun herri eta auzo txiki hauetako denda, taberna eta baserritarren salmenta-puntuetan.



**Landa eremuarekin eta bertako biztanleekin  
talkak ekiditeko hamar neurri**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA  
Federación Guipuzcoana de Montaña